

**EBAZPENA, 2024KO UZTAILAREN  
18KOA, INDUSTRIA  
SAILBURUORDEARENA, ZEINAZ  
ELKARTEK PROGRAMAREN 2024KO  
DEIALDIAREN ESPARRUAN EGINDAKO  
ESKAERAK EBAZTEN DIRA****RESOLUCION DE 18 DE JULIO DE 2024  
DEL VICECONSEJERO DE INDUSTRIA,  
POR LA QUE SE RESUELVEN LAS  
SOLICITUDES EN EL MARCO DEL  
PROGRAMA ELKARTEK-  
CONVOCATORIA 2024**

Eragile zientifiko-teknologikoen eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkeztu dituzte 2024ko ELKARTEK programaren deialdiari heltzeko. Horiek guztiak aztertu egin dira.

Vistas las solicitudes y demás documentación complementaria presentadas por los Agentes Científicos-Tecnológicos al objeto de acogerse a la Convocatoria del Programa ELKARTEK, ejercicio 2024.

**AURREKARIAK**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2023ko abenduaren 26ko Aginduaren bidez, argitara eman zen arlo estrategikoetako lankidetzazko ikerketarako laguntza-programaren deialdia – Elkartek – 2024 Programa.

Laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan hartarako ezarritako aurrekontu-sailetatik aterako dira.

Eragile zientifiko-teknologikoen eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkeztu dituzte, ELKARTEK programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2023ko abenduaren 26ko aginduan xedatutakoari jarraikiz.

**ANTECEDENTES DE HECHO**

La Orden de 26 de diciembre de 2023 de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, hizo pública la convocatoria del programa de ayudas a la investigación colaborativa en áreas estratégicas –Programa Elkartek– 2024.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas proceden de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Los Agentes Científicos-Tecnológicos solicitantes han presentado sus solicitudes, y demás documentación, conforme a lo dispuesto en la Orden de 26 de diciembre de 2023 de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por la que se regula el Programa ELKARTEK.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

ELKARTEK programan diruz laguntzeko modukotzat hartzen dira elkarlaneko oinarrizko ikerketaren proiektuak, industria-ahalmen handia duten ikerketa-proiektuak eta interes berezikoak diren ekintza osagarriak, baldin eta 2023ko abenduaren 26ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak eta esparruak betetzen badituzte.

Onartutako proiektuetarako dirulaguntzak Aginduaren 7. artikuluan zehaztutako zenbatekoen arabera esleitu dira.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

En el programa ELKARTEK son clasificados como subvencionables los Proyectos de Investigación Fundamental Colaborativa, los proyectos de Investigación con alto Potencial Industrial y las Acciones complementarias de especial interés, que cumplan los requisitos y en las áreas señaladas en el artículo 4 de la Orden de 26 de diciembre de 2023.

La asignación de las subvenciones a los proyectos aprobados se realizará conforme a las cuantías que se determinan en el artículo 7 de la Orden.



Ebaluazio-organoak, Aginduan xedatutakoaren arabera, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatu ditu. Era berean, Organoak proiektuak onartzeko proposamenak egin ditu, eta prozedura ebazteko proposamen arrazoitua helarazi dio Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeari.

Proposamen arrazoituak, hautatzea proposatzen diren proiektuen zerrenda jasotzen du eta honako hauek adierazten ditu bakoitzari buruz: ebaluazioan lortutako puntuazioa; proiektu bakoitzeko aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa; proiektua gauzatzeko epeak eta ematea proposatzen den laguntzaren zenbateko orokorra.

Proposamenak, deialdiaren betekizunak ez betetzeagatik ezestea proposatzen diren eskaeren zerrenda, eta, horrekin batera, ezesteko arrazoiak, eta, hala badagokio, ebaluazioan lortutako puntuazioa ere jasoko ditu.

Kargu Publikodunen Jokabide-kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 10 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, 2024ko ekainaren 12ko EHAAn publikatu den Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailburuaren 2024ko maiatzaren 27ko Arauaren bitartez, Industria Sailburuordea, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen ordezkari izendatzen da Elkartek programaren 2024ko deialdia ebazteko.

Aipatu diren legezko manuak eta oro har aplikatzekoak diren bestelako xedapenak aztertu ondoren, Industria sailburuordeak, 2024ko maiatzaren 27ko Arauak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, honako hau

## EBAZTEN DU

**Lehena:** Proiektuak diruz laguntzeko **behin-betiko gutxieneko nota 70 puntutan finkatzea.**

El Órgano de Evaluación, conforme a lo dispuesto en la Orden ha realizado el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas. Asimismo, el Órgano ha elaborado las propuestas de aprobación de proyectos y ha elevado a la Viceconsejera de Tecnología, Innovación y Transformación Digital la propuesta motivada de resolución del procedimiento.

La propuesta integra la relación de los proyectos para los que se propone su selección, indicando para cada uno de ellos la puntuación obtenida en su evaluación, la cuantía total presupuestada en cada proyecto, los plazos para su realización y la cuantía global de ayuda que se proponga conceder.

La propuesta también integrará la relación de las solicitudes que se proponga desestimar por no cumplir los requisitos de la convocatoria, junto con la motivación que fundamenta la propuesta de desestimación, y, en su caso, la puntuación obtenida en su evaluación.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos, mediante Orden de 27 de mayo de 2024 de la Consejera del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente publicado en el BOPV de 12 de junio de 2024, se acuerda la suplencia de la Viceconsejera de Tecnología, Innovación y Transformación Digital por el Viceconsejero de Industria para las tareas de resolución de la convocatoria 2024 del programa Elkartek.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y especial aplicación, el Viceconsejero de Industria, en virtud de las facultades que le otorga la Orden de 27 de mayo de 2024.

## RESUELVE

**Primero:** Establecer en **70 puntos la Nota de Corte definitiva** para la concesión de ayudas.



Elkartek programako 2024ko deialdirako ezarritako aurrekontu-kreditu guztiak kontuan izanda, **laguntza jasoko duten proiektuak, 70 puntu edo gehiago dituzten proiektuak izango dira.**

**Bigarrena:** Hautatutako/ezetsitako proiektuen zerrendan jasotzen diren entitate onuradunei dagozkien laguntzak ematea. Agiri hori deskargatzeko eta kontsultatzeko zure proiektura sartu behar duzu helbide honetan <http://www.spri.eus/Elkartek>.

**Hirugarrena:** Elkartek deialdira aurkeztu zenuen proiektuaren emaitza jakinaraztea ebazpen honen I. Eranskinean.

**Laugarrena:** 2024. urterako eman den eta itzuli beharrik ez dagoen diru-laguntzaren % 50 ordaintzeko agintzea.

Ebazpen hau jakinarazi eta hamabost egun igarotakoan egingo da ordainketa, baldin eta onuradunak esanbidez uko egin ez badio.

Emandako diru-laguntzak abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezartzen den Bermeen eta Itzulketen Araubide Orokorren menpe egongo dira (dekretu horrek arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura jasotako diru-laguntzen bermeen eta itzuleren araubide orokorra eta finkatzen ditu kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintza, araubide eta betebeharrak).

Horrenbestez, **baldin eta aurreratutako zenbatekoa 180.000,00 euro baino handiagoa bada**, erakunde onuradunak **aurkeztu beharko du finantza-erakunde baten ABAL bat** edo Administrazioak nahikotzat jotzen duen beste bermeren bat, aurreratutako ordainketa jaso baino lehen.

**Bosgarrena:** Bai lehen urteko sariaren gainerako parte, bai ondoko urteetako sariak, honako honek baldintzatuta ordainduko dira: aldeaz aurretik justifikatu beharko da, agirien bidez, diruz lagundutako ekitaldi bakoitzeko jarduerak egin direla, betiere **urtea amaitu eta hurrengo lauhilekoan.**

Considerando los créditos presupuestarios destinados a la convocatoria 2024 de Elkartek, **serán subvencionados los proyectos puntuados con la Nota 70 o con una nota superior.**

**Segundo:** Conceder a las entidades beneficiarias, las ayudas que se relacionan en el documento **Relación de proyectos seleccionados/desestimados** que podrá descargarse y consultar accediendo a su proyecto en <http://www.spri.eus/Elkartek>.

**Tercero:** Informar del resultado de su proyecto en la convocatoria Elkartek en el **Anexo I** de esta resolución.

**Cuarto:** Ordenar el **pago del 50%** de la subvención no reintegrable concedida para la anualidad 2024.

El abono se realizará transcurrido el plazo de quince días desde la percepción de esta resolución sin que medie renuncia expresa por parte del beneficiario.

La subvención concedida se encuentra sometida al Régimen General de Garantías y Reintegros establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión.

En consecuencia, **siempre que la cantidad anticipada tenga un importe superior a 180.000,00 euros**, la entidad beneficiaria **deberá presentar un AVAL** de una entidad financiera u otro tipo de garantía que la Administración estime suficiente con carácter previo a la percepción del pago anticipado.

**Quinto:** Señalar que el abono del resto de la primera anualidad, así como las sucesivas anualidades, estarán condicionadas a la presentación de la documentación justificativa de la realización de las actividades de cada ejercicio subvencionado, que deberá realizarse el **primer cuatrimestre siguiente al del año concluido.**



**Seigarrena:** Ebazpen honekin batera doaz urteko justifikazio-kontua aurkezteko argibideak.

Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera ematen ez dionez, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), bai eta banaka ere.

**Sexto:** Las Instrucciones para la presentación de la cuenta justificativa anual se adjuntan a esta resolución.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer Recurso de Alzada ante el Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de los establecido en la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

De conformidad con lo previsto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución se notificará mediante su publicación en el tablón electrónico de anuncios (<https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/>) y de manera individual.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 18an

Mikel Amundarain Leibar  
INDUSTRIA SAILBURUORDEA  
VICECONSEJERO DE INDUSTRIA